

## CALL FOR PAPERS

### Nazioarteko biltzarra "ITSASO ARTEAN: Erromatar portuen kokapena, azpiegitura eta antolaketa" Irun, 2020ko azaroak 24-26

#### PREMISA

2003ko azaroan, Pisan (Italian), portu erromatarrei buruzko aurkikuntza arkeologikoak aztertzeke nazioarteko lehen bilera egin zen. Arkeolanen, Erromako Historia eta Arkeologia Eskola Espainiarraren (Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenaren) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzatik sortu zen ekimena. Topaketaren emaitzak EHAEren monografia batean argitaratu ziren, zeina itsas munduari buruzko ikerketa lerro berritzaile baten abiapuntutzat har daitekeen, gai berritzaile batzuk nabarmendu baitzituen, hala nola nabigazio bideak, ontzigintza, itsas merkataritza eta portuak eurak, eta, azken urteotan, portuen eta lehorraren arteko harremanak aztertzeke ikerketa ildo estrategiko bilakatu dira guztiak.

Historia eta Arkeologia Eskola Espainiarreko zuzendaritza taldearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ustez, komeni da beste topaketa bat antolatzea, azken urteetan gaiari buruz sortu diren ezagutzak eguneratzeko ez ezik, esparru geografikoa Atlantikotik Inperio osora zabaltzeko. Bada, Irunen egingo da, 2020ko azaroaren 24, 25 eta 26an, eta hiru jardunalditan banatuko da, Inperioko itsas espazioak jorratuko dituzten sei saiotan. **Azken batean, helburua da monografia batean biltzea gaur egun portu erromatarrei buruz eskuragarri dauden erregistro arkeologikoen errolda osoa. Gure ustez, lan hori erreferentziako bolumena bihur daiteke ikertzaileentzat.**

**ANTOLAKUNTZA:** Gabriela Vives Almandoz (Gipuzkoako Foru Aldundia), Maria Mercedes Urteaga Artigas (Gipuzkoako Foru Aldundia) Antonio Pizzo (EEHAR-Erromako Historia eta Arkeologia Eskola Espainiarra CSIC), Elena Torregaray Pagola (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea)

**IDAZKARITZA:** Jokin Lanz Betelu (Arkeolan Fundazioa)

**INFO:** [secretariaentremares2020@gmail.com](mailto:secretariaentremares2020@gmail.com); <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/entremares>

**Oiasso zaharrean (Irunen, Espainian) erromatar portuei buruz egitekoak garen biltzarrean parte har dezazun gustatuko litzaziguke.**

Parte hartzaileek **gai nagusi** hauetako baten inguruan ardazu beharko dituzte beren ekarpen eta eztabaidak:

1. Lekukotasun arkeologikoak (kaiak, dikeak, dartsenak, ontzitegiak, amarralekuak, *horrea*...)
2. Testuingurua (maila, funtzioa, hierarkia, lotutako hiriak, itsasbideak, bide sarea...)
3. Ikuspegi diakronikoa, dinamika ekonomiko eta politikoen eta ingurumen dinamikaren arabera

**Ekarpen mota:** Posterra + mintzaldi labur bat, zortzi minutukoa gehienez ere

**Hizkuntzak:** Ingelesa, frantsesa, italiara, gaztelania, euskara

**Epemuga:** Mintzaldi laburra (gehienez ere 5.000 hitzeko laburpena) bidaltzeko **azken eguna, 2020ko irailaren 30a**